

Sail Txostena - GASTUAK
Memoria Departamento - GASTOS

SAILA / DEPARTAMENTO	ATALA / SECCIÓN	FUNTZIONALA / FUNCIONAL
04. Euskara, Kultura eta Kirola 04. Euskera, Cultura y Deporte		
Euskara, Kultura eta Kirola Foru Sailak 2022ko ekitaldian zehar egindako jarduerak bost arlotara bildu dira: 1. Kultur Ondarearen arloa. 2. Kultur Ekintzako arloa. 3. Kirol arloa. 4. Euskara arloa. 5. Zerbitzu zentralen arloa. Horrela, hauexek nabarmen ditzakegu: 1. Kirol arloa. Arlo honen barruan, jarduketa egitarau hiru nabarmen ditzakegu: 1.1. Jolas Kirola. Programan bertan jasota dagoenez, helburu orokorra da kirola egiteko ohitura sortzeko baliabideak ematea bizkaitarrei, eta, bereziki, Bizkaiko Eskola Kirolaren 2021/2022ko denboraldiaren antolaketa nabarmendu behar dugu, nahiz eta, jakina denez, programaren helburuak hein handi bateab baldintzatu dituzte COVID-19aren ondorioek. Gainera, eskola-kiroleko jardueretan parte hartzen duten erakundeak diruz laguntzen jarraitu dugu; era berean, beste jardura batzuk ere sustatu ditugu, hala nola 3K programa, Eskolako Kirol Proiektua (EKP), teknikarien prestakuntza eta gurasoentzako lineako prestakuntza-programa. 1.2. Kirol federatua. Programaren helburu nagusia izan da kirol federatua sustatzea, biztanle-tarte eta kirol-aukera guztiak barneratzen dituen kirol-antolaera eredugarri gisa.	Las actividades desarrolladas por el Departamento Foral de Euskera, Cultura y Deporte durante el ejercicio 2022, se han centrado en cinco áreas: 1. Área de Patrimonio Cultural. 2. Área de Acción Cultural. 3. Área de Deportes. 4. Área de Euskera. 5. Área de servicios centrales. Podemos así destacar: 1. Área de Deportes. Dentro de este área podemos destacar tres programas de actuación: 1.1. Deporte Recreativo. Dentro del programa se contempla el objetivo general de facilitar a la población de Bizkaia los recursos para generar hábito deportivo, con especial mención a la organización del programa de Deporte Escolar de Bizkaia correspondiente a la temporada 2021/2022. Además, se sigue apostando por subvencionar a las entidades participantes en las actividades de deporte escolar, así como otras actuaciones tales como el programa 3K, el Proyecto Deportivo Escolar (PDE), la formación del personal técnico y el programa de formación online para madres y padres. 1.2. Deporte Federado. El objetivo del programa ha sido impulsar la práctica deportiva federada como modelo de organización deportiva, en el que tengan cabida todos los segmentos de la población, así como las distintas opciones de práctica.	



Sail Txostena - GASTUAK Memoria Departamento - GASTOS

SAILA / DEPARTAMENTO	ATALA / SECCIÓN	FUNTZIONALA / FUNCIONAL
04. Euskara, Kultura eta Kirola 04. Euskera, Cultura y Deporte		
Bizkaiko Foru Aldundiaren iritziz, berebiziko interesa duten kirol-jardueren atalaren barruan, guztira, 32 kirol-txapelketa diruz lagundu dira. Beste alde batetik, Bizkaiko kirol-federazioei ere kontraprestazio ekonomikoak eman dizkiegu, eurei dagozkien administrazioaren esparruko zeregin publiko administratibo eskuordetuak egikaritu ditzaten eta teknifikazio-programak garatzeko; eta ASFEDEBI, Bizkaiko Kirol Federazioen Elkartearetik lankidetzari eutsi zaio, Bizkaiko dela kirol federazioen baliabideak optimizatzeko, dela Bizkaiko kirola eta kirol-prestakuntza garatzeko.		Dentro del apartado de las actividades deportivas consideradas de especial interés por la Diputación Foral de Bizkaia, se han subvencionado un total de 32 competiciones deportivas. Se ha procedido también a la concesión de contraprestaciones económicas a las Federaciones Deportivas de Bizkaia para el ejercicio de sus funciones públicas de carácter administrativo delegadas y para el desarrollo de sus programas de tecnificación, así como a mantener la colaboración con la Asociación de Federaciones Deportivas de Bizkaia (AS.FE.DE.BI.) para la optimización de los recursos de las Federaciones Deportivas de Bizkaia y el desarrollo del deporte vizcaíno y de la formación deportiva.
Herri-kirolak sustatu dira, Bizkaiko euskal joko eta kirol federazioetan, hots arraun-federazioan eta euskal pilota-federazioan berariazko programak garatuz. Gainera, dirulaguntza bat eman zaio Traineruen Kluben Elkarteari, Bizkaiko uretan estropadak antolatu eta balizatzeko.		Promoción del Deporte Autóctono, con programas específicos en las Federaciones Vizcaínas de Juegos y Deportes Vascos, de Remo y de Pelota Vasca y la concesión de una subvención para la Asociación de Clubes de Traineras para la organización y balizaje de las regatas en aguas de Bizkaia.
Eliteko kirolaren sustapenari dagokionez, Bizkaia-Bizkaialde Fundazioa 24 babesle izatera heldu da, eta, guztira, 31 kirol klub edo elkarte babestu ditu. Halaber, dirulaguntza eman zaie banakako kirolariei, nazioarteko probetan parte hartzeko.		De cara a la promoción del deporte de élite, la Fundación Bizkaia-Bizkaialde cuenta con un total de 24 patrocinadores, habiendo sido 31 los clubes deportivos patrocinados y se ha subvencionado a deportistas individuales su participación en pruebas internacionales.
Bukatzeko, etorkizun oparoa izan dezaketen kirolariei laguntzeko programa aipatu behar da, bai eta federazioen errealitatean presentzia txikiagoa duten kolektiboen sustapena ere.		Finalmente, resaltar el programa de apoyo a deportistas promesas para alcanzar la élite deportiva, así como el impulso a la participación de colectivos con menor presencia en la realidad federativa.
1.3. Udal kirola.		1.3. Deporte Municipal.
Helburua Bizkaiko herritarren kirol-jardueraren tasa handitzea da, bai eta herritarren kirolarekiko atxikimenduarena ere.		Su objeto es aumentar las tasas de práctica deportiva de la ciudadanía vizcaína, así como la adherencia a la misma.



Sail Txostena - GASTUAK
Memoria Departamento - GASTOS

SAILA / DEPARTAMENTO	ATALA / SECCIÓN	FUNTZIONALA / FUNCIONAL
04. Euskara, Kultura eta Kirola 04. Euskera, Cultura y Deporte		
Hori lortzeko, honako ildo estrategiko hauek ezarri dira: udalaren kirol-ingurumariaren ezagutzan sakontzea, teknologia berriak erabiliz eta sareko lanak bultzatuz kirol-jarduera sustatzea, kirolari lotutako eragileen ezagutza lantzea eta pertsona guztientzako kirol-ekimen bereziak babestea. Horretarako, udalaz gaindiko kirol-instalazioetan inbertsioak egiteko diru-laguntzak eman zaizkie toki-erakundeei.	Para conseguirlo, se establecen las siguientes líneas estratégicas: ahondar en el conocimiento de la realidad deportiva municipal, fomentar la práctica deportiva a través de las nuevas tecnologías e impulsando trabajos en red, generar conocimiento en los agentes relacionados con el deporte, apoyar iniciativas singulares vinculadas a deporte para todas las personas.	
2. Kultura Ondarearen arloa.	2. Área de Patrimonio cultural.	
Honako hiru ardatz hauen inguruan egin da lan:	Los ejes sobre los que se ha trabajado ha sido los siguientes:	
2.1.- Ikerkuntza.	2.1.- Investigación	
2.2.- Zaharberrikuntza-Kontserbazioa	2.2.- Restauración-Conservación	
2.3.- Zabalkundea	2.3.- Difusión	
2.4.- Foru Agiritegia	2.4.- Archivo Foral.	
2.5.- Foru Liburutegia	2.5.- Biblioteca Foral.	
2.1. Ikerkuntza.	2.1. Investigación.	
Ildo horretan, 2022ko ekitaldiaren baitan, Bizkaiko lurralde historikoan lan egiten duten ikertzaileek bultzatu eta kudeaturiko proiektuei emandako laguntzaz gain, Bizkaia-erentzat interes arkeologiko eta etnografikoa duten hainbat ekintza landu ditu Foru Erakundeak.	En este sentido, durante el ejercicio 2022, además del apoyo dado a los proyectos impulsados y gestionados por personas investigadoras que operan en el Territorio, desde la Entidad Foral también se han abordado actividades de interés arqueológico y etnográfico para Bizkaia.	
Horien artetik, honako kanpaina hauek nabarmendu behar dira: Santimamiñe koba, Armintxe haitzuloa (Lekeitio), Foruko erromatarren herrixka eta Laida I eta Laida II ontzi-aztarnak, besteak beste.	De entre ellos, cabe destacar las campañas de la cueva de Santimamiñe, cueva Armintxe (Lekeitio), poblado romano de Forua, y de los pecios Laida I y Laida II, entre otras.	
2.2. Zaharberrikuntza-Kontserbazioa.	2.2. Restauración-Conservación.	
Atal honetan, gehienbat hauexek izan dira jardueraren ardatzak:	En este apartado, la actividad se ha centrado fundamentalmente en:	



Sail Txostena - GASTUAK
Memoria Departamento - GASTOS

SAILA / DEPARTAMENTO	ATALA / SECCIÓN	FUNTZIONALA / FUNCIONAL
04. Euskara, Kultura eta Kirola 04. Euskera, Cultura y Deporte		
2.2.1. Bizkaiko kultura ondareko elementuetan jarduteko aurretiazko baimenak; foru aldundiei dagokie soilik eskumen hori. Guztira, 241 espediente ebatzi egin dira 2022ko ekitaldian.	2.2.1. Autorizaciones previas para la intervención en elementos que conforman el patrimonio Cultural de Bizkaia, competencia que corresponde exclusivamente a las Diputaciones Forales. En total se han resuelto durante el ejercicio 2022 un total de 241 expedientes.	
2.2.2. Ildo horretan, aipatzekoa da Lekeitioko Udalari Mendieta ontziola eta haren ingurua egokitzeko jarduketak garatzeko emandako diru-laguntza. Era berean, San Martin ermitako estalkia eta udal-hilerria zaharberritzeko xedez, Markina-Xemeingo Udalari emandako dirulaguntzak ere aipatu behar ditugu.	2.2.2. Cabe destacar a este respecto, la subvención concedida al Ayuntamiento de Lekeitio, destinada a las actuaciones de acondicionamiento del astillero Mendieta y su entorno y las concedidas al Ayuntamiento de Markina-Xemein, destinadas a la restauración de la cubierta de la ermita de San Martín y del cementerio municipal.	
Halaber, Kultura Ondare Zibilaren zaharberrikuntzaren arloan, 19 proiektutarako laguntza eman da; guztira 40 pertsona izan dira diruzko laguntzen onuradunak.	Asimismo, en el ámbito de la rehabilitación del Patrimonio Cultural Civil, se han apoyado un total de 19 proyectos, habiéndose beneficiado de las ayudas económicas un total de 40 personas.	
2.2.3. Kultura Ondarearen Zerbitzuaren aholkularitza eta jarduketak.	2.2.3. Asesoramiento y actuaciones del Servicio de Patrimonio Cultural.	
Foru Erakundeak eskaintzen duen ondarearen inguruko aholkularitzari dagokionez, bisita ugari egin dituzte Kultura Ondarearen Zerbitzuko teknikariek ondasunetan esku hartzeko irizpideak ezartze aldera; hartara, proiektu horietan guztietan, aholkuak eman zaizkie sustatzaile guztiei banaka.	En cuanto a la labor de asesoramiento que se oferta desde la Entidad Foral, se han realizado numerosas visitas por personal técnico del Servicio de Patrimonio Cultural, a fin de establecer criterios de intervención, habiéndose asesorado a los promotores individualmente en todos y cada uno de los proyectos.	
Kultura ondare higigarriari dagokionez, Zaharberrikuntza eta Kontserbazio Arloak lau margolan eta lau eskulturatan jardun du, eta erretaula baten gaineko jarduketak gauzatzeko finantzazioa eman du. Era berean, atal honetan aipatzekoa da obrei buruz emandako aholkularitza eta egindako kontserbazio lanak, bai BizkaikOAKo proiektuentzat, bai Bizkaiko udal eta museoentzat.	Respecto al Patrimonio Cultural de carácter mueble, desde el Área de Restauración y Conservación se ha intervenido directamente sobre cuatro piezas de pintura y cuatro esculturas, así como financiado la intervención sobre un retablo. Igualmente, en este apartado cabe destacar la labor de asesoramiento y conservación de obras, tanto a los proyectos que conforman BizkaikOA como a los museos y ayuntamientos de Bizkaia.	



Sail Txostena - GASTUAK Memoria Departamento - GASTOS

SAILA / DEPARTAMENTO	ATALA / SECCIÓN	FUNTZIONALA / FUNCIONAL
04. Euskara, Kultura eta Kirola 04. Euskera, Cultura y Deporte		
2.3. Zabalkundea	2.3. Difusión.	
Kultura Ondarearen zabalkundeari buruzko kapituluak, Bizkaiko Foru Aldundiak Bizkaiko sarea osatzen duten museoetara eta kultura-interes bereziko proiektuak egiten dituzten erakundeei emandako diru-ekarpenez gain, BizkaikOA Foru Erakunde Publikoak egiten duen jarduerara nabarmendu behar da, sareko museoek garatzen dituzten jarduerak eta guztion eskaintza koordinatzen dituela eta.	En el capítulo de divulgación del Patrimonio Cultural, además de las aportaciones económicas que la Diputación Foral de Bizkaia realiza a los diferentes Museos que conforman la Red en Bizkaia y a entidades que realicen proyectos de interés cultural especial, cabe destacar la actividad desarrollada por la Entidad Pública Empresarial Foral BizkaikOA, en cuanto a la coordinación en la actividad y oferta museística.	
2.4. Bizkaiko Foru Agiritegia.	2.4. Archivo Foral de Bizkaia.	
Bizkaiko dokumentu-ondarea bildu, zaindu, kudeatu eta katalogatzeko lanekin jarraitu dugu, eta, bereziki, Foru Aldundiaren zuzeneko ardurakoak direnatan. Lan hori Foru Agiritegia osatzen duten unitateen bidez egin da, zertarako-eta katalogaturiko funtsen maila egokiari eutsi ahal izateko, betiere ikertzaileen eskura jartzeko helburuz.	Se ha continuado con las labores de recogida, custodia, gestión y catalogación del Patrimonio Documental de Bizkaia y en especial, del que es responsable directo la Diputación Foral, realizándose esta labor a través de las diferentes unidades que conforman el Archivo Foral, a fin de mantener unos niveles adecuados de fondos catalogados susceptibles de ser puestos a disposición de las personas investigadoras.	
Illo horretan, esan beharra dago Internet bidez kontsultatu daitezkeela katalogatutako funtsak. Horrez gain, Foru Agiritegiko agiriak zaharberitzeko eta digitalizatzeko prozesua garatzen jarraitu dugu.	En este sentido, destaca la posibilidad de consultar a través de internet los fondos catalogados. Además, se ha continuado el proceso de restauración y digitalización de la documentación del Archivo Foral.	
2.5. Foru Liburutegia.	2.5. Biblioteca Foral.	
Bizkaiko Foru Liburutegiaren jarduerari dagokionez, berriz, funtsen bilduma aberasten jarraitu dugu, eta bertako funts bibliografikoak koadernatzeko, digitalizatzeko eta katalogatzeko zereginak gauzatu dira, ondare balioak hedatuz eta kalitatezko zerbitzua eskainiz erabiltzaile eta ikertzaileei.	Por lo que se refiere a la actividad de la Biblioteca Foral de Bizkaia, se ha continuado con el enriquecimiento del fondo, así como con las labores de encuadernación, digitalización y catalogación de los fondos bibliográficos de la misma, difundiendo sus valores patrimoniales y ofreciendo un servicio de calidad a las personas usuarias/investigadoras.	
Zabalkunde-programa indartu egin da: erakusketak, literatura-topaketak, hitzaldiak eta askotariko lantegiak, ikastaroak eta irakurketa taldeak, guztien artean, "Bizkaldatz" eta "Bizkaldatz Txikia" literatura-lehiaketak nabarmentzen direla.	Se ha potenciado el programa de divulgación, que comprende exposiciones, encuentros literarios, conferencias y diversos talleres, cursos y grupos de lectura, destacando el certamen literario "Bizkaldatz" y "Bizkaldatz Txikia".	



Sail Txostena - GASTUAK
Memoria Departamento - GASTOS

SAILA / DEPARTAMENTO	ATALA / SECCIÓN	FUNTZIONALA / FUNCIONAL
04. Euskara, Kultura eta Kirola 04. Euskera, <i>Cultura y Deporte</i>		
Foru Liburutegia mundu digitalera egokitzeko xedez, liburutegiak kudeatzeko "SIGB Sierra" aplikazio informatikoa garatu da, funtsak errazago eskuratzeko. Hala, funtsok egoki jagongo direla bermatuko da.	Con objeto de acomodar la Biblioteca Foral al mundo digital, se ha desarrollado la aplicación informática de gestión de bibliotecas "SIGB Sierra" dirigida a una mayor accesibilidad a los fondos que asegure su adecuada conservación.	
3. Kultur ekintzako arloa.	3. Área de Acción Cultural.	
Bi jarduera-programa landu ditugu:	Se ha trabajado con dos programas de actuación:	
3.1. Kultur Hedakuntza.	3.1. Extensión Cultural.	
Jardueraren oinarritzko ardatzak hauexek izan dira:	Los ejes básicos de la actividad de esta área han sido:	
- Bizkaiko udal eta mankomunitateetako agente kulturalen eta kultura-zerbitzuen ekimenak bultzatzea, hainbat motatako laguntza handia emanez: ekonomikoa (bereziki azpimarratu behar dira erakunderik baztertuenak, lurralde orekaren ikuspuntutik), aholkularitza-laguntza, laguntza teknikoa eta koordinazio-laguntza. - Babesa eman zaie kultura-esparruko erakundeei, batez ere, Bilboko Orkestra Sinfonikoari (BOE) eta Operaren Lagunen Bilboko Elkarteari (OLBE), bai eta ikuskizun eszenikoen sustapenari ere, arreta berezia jarritz udal-antzokiei eta Bizkaian musika-, antzerki- eta dantza-ikuskizunak programatzen eta antolatzen dituzten enpresei. Azkenik, ikus-entzunezko kultura-proiektuak ere sustatu ditugu. - Arte-sorkuntza sustatu eta laguntza eman zaio. Horretarako, bekak banatu dira hainbat modalitatetan; beste alde batetik, Bizkaiko sortzaile plastikoak sustatzeko jarduerak bultzatu dira, "Ertibil" erakusketa ibiltariaren bidez, eta laguntza eman zaie Bizkaiko udalerrietan egindako erakusketei.	- Potenciación de las iniciativas de los agentes culturales y de los servicios culturales de los Ayuntamientos y Mancomunidades de Bizkaia mediante una importante labor de apoyo económico (haciendo especial incidencia en las Entidades más desfavorecidas desde un punto de vista de equilibrio territorial), de asesoramiento técnico y de coordinación. - Apoyo a entidades culturales, destacando la Orquesta Sinfónica de Bilbao (BOS), y a la Asociación Bilbaína de Amigos de la Opera (ABAO), así como a la promoción de espectáculos escénicos, con especial atención a los teatros municipales y a las empresas encargadas de la programación y organización de espectáculos de música, teatro y danza en Bizkaia, y a la promoción de proyectos culturales audiovisuales. - Promoción y apoyo a la creación artística. Para ello se han concedido becas en diferentes modalidades, así como se han impulsado actividades de promoción de los creadores plásticos de Bizkaia mediante la Muestra Itinerante "Ertibil" y apoyado a exposiciones coordinadas en los municipios de Bizkaia.	



Sail Txostena - GASTUAK Memoria Departamento - GASTOS

SAILA / DEPARTAMENTO	ATALA / SECCIÓN	FUNTZIONALA / FUNCIONAL
04. Euskara, Kultura eta Kirola 04. Euskera, Cultura y Deporte		
- Hiriguneak ez diren eremuetan kultura-eskaintza zabaldu eta dibertsifikatzea, Europar Batasunak finantzatzen duen Suspertze, Transformazio eta Erresilientzia Planaren esparruan, EBren Next Generation funtsetatik jasotako aparteko ekarpenarekin. - Prestakuntza- eta koordinazio- jardueretan arituko den Bizkaiko Dantza Etxea proiektua nabarmendu behar da, . - Bizkaiko Musika Jaialdiak antolatu ditugu, Bizkaiko udal eta udal-fundazio publikoekin elkarlanean.	- Ampliar y diversificar la oferta cultural en áreas no urbanas en el marco del Plan de Recuperación, Transformación y Resiliencia financiado por la Unión europea, con motivo de la aportación extraordinaria recibida a través de Fondos Next Generation-EU. - Destacar el proyecto Bizkaiko Dantza Etxea destinado a actividades de formación y coordinación. - Mencionar la organización de los “Bizkaiko Musika Jaialdiak”, en colaboración con diferentes ayuntamientos y fundaciones públicas municipales de Bizkaia.	
Gainera, argitalpenen katalogoa eguneratu da, eta kultur intereseko hainbat lan argitaratu dira; gainera, Barakaldoko, Santurtziko, Bilboko eta Durangoko liburu azoketan parte hartu dugu	Además, se ha actualizado el catálogo de publicaciones, así como editado distintas obras de interés cultural, y participado en las Ferias del Libro de Barakaldo, Santurtzi, Bilbao y Durango.	
Azpmarratu behar da, azkenik, Sailaren mende diharduen “Euskalduna Jauregia-Palacio Euskalduna, SA” foru enpresa publikoari emandako babesa eta laguntza.	Destacar finalmente, el fomento y apoyo dado a la empresa pública foral dependiente del Departamento “Euskalduna Jauregia-Palacio Euskalduna, SA”.	
3.2. Gizarte- eta hezkuntza-ekipamendu eta -programak.	3.2. Equipamientos y Programas Socioeducativos.	
Programa honen barrukoak ditugu foru-aterpetheen funtzionamenduko eta mantentze-lanetako gastuak, gazteentzako ekipamenduen finantziazioa, bai eta foru-erakundeak berak gazteentzako antolatzen dituen jardueren eta Gizarte eta Hezkuntza Programen atalaren ardurapeko azpiegitura egonkorrean gauzatzen diren jardueren gastuak ere.	Dentro de este Programa se pretende dar cabida a los gastos derivados del funcionamiento y mantenimiento de los Albergues Forales y financiación de equipamientos juveniles, así como los de todas aquellas actividades juveniles que se organizan por la propia institución foral y las que se desarrollan dentro de la infraestructura estable que es responsabilidad de la sección de Programas Socioeducativos.	
Bizkaiko haur eta gazteek aisialdiaz gozatzeko eta naturarekin harremanetan jartzeko asmoz, “Udalekuak” kanpaina antolatu da udaldian, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde historikoetako beste foru-aldundiekin batera.	Con la pretensión de posibilitar el contacto con la naturaleza y el disfrute del ocio recreativo y de tiempo libre de niños, niñas y jóvenes de Bizkaia, se ha organizado la campaña de verano “Udalekuak” en colaboración con las otras Diputaciones Forales de los Territorios Históricos de la Comunidad Autónoma.	



Sail Txostena - GASTUAK
Memoria Departamento - GASTOS

SAILA / DEPARTAMENTO	ATALA / SECCIÓN	FUNTZIONALA / FUNCIONAL
04. Euskara, Kultura eta Kirola 04. Euskera, Cultura y Deporte		
Gazteen mugikortasunari lotutako udaleku, jolasleku eta programetako jolas- eta prestakuntza-jardueretan, elkartegintza sustatze aldera, udalekuak, jolaslekuak eta lan-esparruak 2022. ekitaldiko udaldian jarduerak antolatzeke foru-dirulaguntzen deialdia onartu da, umeen eta gazteen esparruetan lan egiten duten Bizkaiko erakundeentzat. Era berean, aisialdiko hezitzaileak prestatzeko eskolek emandako prestakuntza errazteko eta kultura parte-hartzailea eta gazteen elkartzea sustatzeko, hurrenez hurren, aisialdi alorrean prestakuntza errazteko diru-laguntzen deialdiak eta Bizkaiko Lurralde Historikoan aisialdia eta astialdia koordinatzeko egiturei eusteko dirulaguntzen deialdiak onartu dira. 4. Euskara arloa. Arlo honetan jarraitu zaien funtsezko jarduketatarroak honako biak izan dira: 4.1. Bizkaiko Lurralde Historikoan, euskararen erabilera sustatzea, honako eremuotan jardunez: Enpresa-munduan ere eragin da eta euren lantokietan euskara erabiltzeko planak garatzen dabiltzan enpresei laguntzak eman zaizkie. Gainera, Bizkaian euskaraz argitaratzen diren aldizkako argitalpenak eta euskara eta teknologia berriak uztartzen dituzten programak sustatu dira.	Con el objetivo de fomentar el asociacionismo en el desarrollo de actividades lúdico-formativas en colonias y campamentos y en programas de movilidad juvenil, se aprobó la convocatoria de subvenciones forales a las entidades vizcaínas de ocio y tiempo libre que trabajen en el ámbito de la infancia y juventud, para la organización de colonias, campamentos y campos de trabajo durante el verano del año 2022. Igualmente, de cara a favorecer la actividad formativa impartida por las escuelas de formación de educadores y educadoras en materia de tiempo libre, y a fomentar la cultura participativa y el asociacionismo juvenil, se aprobaron, respectivamente, las convocatorias de subvenciones destinadas a favorecer la actividad formativa en materia de tiempo libre, y al mantenimiento de estructuras de coordinación de ocio y tiempo libre, en el Territorio Histórico de Bizkaia. 4. Área de Euskera. En esta área se han seguido dos líneas fundamentales de actuación: 4.1. Promoción del uso del euskera en el Territorio Histórico, a través de actuaciones en los siguientes ámbitos: En el mundo empresarial, se han concedido ayudas a las empresas que están llevando planes de uso del euskera en sus centros de trabajo. Además, se ha fomentado también las publicaciones periódicas que se editan en euskera en Bizkaia y los programas que conjugan el euskera y las nuevas tecnologías.	



Sail Txostena - GASTUAK Memoria Departamento - GASTOS

SAILA / DEPARTAMENTO	ATALA / SECCIÓN	FUNTZIONALA / FUNCIONAL
04. Euskara, Kultura eta Kirola 04. Euskera, Cultura y Deporte		
Beste funtsezko alderdi bat Bizkaiko Lurralde Historikoan euskararen azpiegiturak sendotzea izan da. Horretarako, arlo honetan lan egiten duten antolakundeen arteko ehundura buktzatu da; ildo horretan, Euskaltzaindiarekin indarrean dagoen hitzarmena nabarmendu nahi dugu, baita Labayru Institutuari, Irratibide SAri, Gerediaga Elkarteari, Udako Euskal Unibertsitateari eta UPV/EHUri emandako laguntza ere.		Otro aspecto fundamental ha sido el fortalecimiento de las infraestructuras del euskera en el Territorio Histórico de Bizkaia, para lo cual se han potenciado los tejidos asociativos que trabajan en este campo; en este aspecto deseamos remarcar el convenio vigente con Euskaltzaindia, así como el apoyo al Instituto Estanislao J. de Labayru, Irratibide S.A., Gerediaga Elkartea, la Universidad Vasca de Verano, y la ayuda concedida a la UPV/EHU
Euskararen Egunaren ospakizuna azpimarratu beharra daukagu, Aldundiak hainbat ekitaldi antolatu baitzituen berariaz, besteak beste, Bilboko Elkarrekin Filarmonikoan antolatutako ekitaldia Lauaxeta Sariak emateko.		La celebración del Euskararen Eguna merece una mención, ya que se llevaron a cabo diferentes actos organizados al efecto por la Diputación, entre los que tuvo especial relevancia el celebrado en la Sociedad Filarmónica de Bilbao para la concesión de los Premios Lauaxeta.
Gainerako erakunde ofizialekiko elkarlanean aritzeari garrantzi handia eman diogu. Gauzak horrela, giltzarri diren bilguneetan gogo biziz parte hartu dugu, hala nola Euskararen Aholku Batzordean, HAKOBAn eta Euskara Bizia batzordean, eta proiektu erkideak sortzen eta gauzatzen parte hartu dugu, esate baterako, Euskararen Txantxangorria kanpaina eta BIKEE (Bizkaian Kirola ere Euskaraz) ekimenean.		Se ha incidido en la colaboración con el resto de instituciones oficiales, participando activamente en los foros clave, tales como el Consejo Asesor del Euskera, HAKOBA, Euskara Bizia Batzordea, etc. colaborando en la elaboración y realización de proyectos comunes, como la campaña Euskararen Txantxangorria, y la iniciativa BIKEE (Bizkaian Kirola ere Euskaraz).
Era berean, aipatu behar da lan handia garatu dela bizkaiera sustatzen lan egiten dutenekin eta udal erakundeekin, erakunde horien euskara sustatzeko aurrekontu-beharrizanen arabera dirulaguntzak emateko helburuz. Era berean, azpimarratu beharra dago "Alkarbide" bilgunearen bultzada Bizkaiko udal eta mankomunitateetako euskara zerbitzuen topagune gisa.		También hay que destacar la tarea desarrollada con los organismos que trabajan en la potenciación del euskara vizcaíno y con las entidades municipales, para subvenir a sus necesidades presupuestarias en el fomento del euskera. Mencionar también, el impulso del foro "Alkarbide" como espacio de encuentro de los servicios de euskara de los ayuntamientos y mancomunidades.
Azkenik, Euskal Herriko Unibertsitatearekin eta Euskaltzaindiarekin batera, Azkue Fundazioari emandako laguntza aipatu behar da, euskara puntako teknologien bidez sustatzeko.		Finalmente referir el apoyo dado junto a Euskaltzaindia y la Universidad del País Vasco, a Azkue Fundazioa para el fomento del euskera utilizando tecnologías punta.



Sail Txostena - GASTUAK
Memoria Departamento - GASTOS

SAILA / DEPARTAMENTO	ATALA / SECCIÓN	FUNTZIONALA / FUNCIONAL
04. Euskara, Kultura eta Kirola 04. Euskera, Cultura y Deporte		
4.2. Bizkaiko Foru Aldundiaren barruko normalizazioa, itzulpenak, terminologia eta hizkuntza-teknologia.	4.2. Normalización, traducción, terminología y tecnología lingüística dentro de la Diputación Foral de Bizkaia.	
Hizkuntza-prestakuntzari eta HEak egiaztatzeari lotutako jarduerak egin dira.	Se han realizado actividades de formación y acreditación lingüística.	
Hori dagokionez, nabarmendu behar da Foru Aldundiko lanpostuei esleituriko eskakizunak egiaztatzeko ikastaro berriak eskaini direla, eta Euskararen Erabilera Normalizatzeko Planaren esparruan, hizkuntzaren erabilera sustatzeko mikroplanak (EraMiak) garatu dira. hainbat sailetan. Halaber, langileek euren lanpostuetarako hizkuntza-prestakuntza eskaintzen jarraitu dugu, 2021-2022 ikasturtean, 25 lantalde antolatu direla, Bizkaiko Foru Aldundiaren Euskararen Erabilera Sustatzeko Planaren barruan. Inguruabar horretan, eta lineako ikastaroen bidezko prestakuntza jasotzeko aukera ere sendotzen ari gara.	Cabe destacar a este respecto, la oferta de nuevos cursos dirigidos a la consecución de los perfiles asignados a los diferentes puestos de trabajo de la Diputación Foral y en el marco del Plan de Normalización del Uso del Euskera, los microplanes de fomento del uso del euskera (EraMis) en varios departamentos. Asimismo, se continúa con la labor de formación lingüística de las personas empleadas en sus puestos de trabajo, organizándose 25 grupos de trabajo en el curso 2021-2022, dentro del Plan de actuación de Fomento del Uso del Euskara en la Diputación Foral de Bizkaia y se va consolidando la opción de la formación a través de los cursos on-line.	
Bestalde, itzulpenak, terminologia eta hizkuntza-teknologia eremuaren baitan, funtsezko helburua dugu Foru Aldundian sortzen diren testu guztiak gaztelaniara, euskarara, ingelesera eta frantsesera eta alderantziz itzultzea. Halaber, euskarari dagokionez, administrazio-hizkera eta euskarazko terminologia juridiko-administratiboa bateratu, normalizatu eta garatzea; bai eta toponimia eguneratzea ere.	Por otra parte, el objetivo esencial en el campo de la traducción, terminología y tecnología lingüística es la labor de traducción entre castellano, euskara, inglés y francés de los textos que se generan en la Diputación Foral, así como la unificación, normalización y desarrollo del lenguaje administrativo y de la terminología jurídico-administrativa del euskara, y en la actualización toponímica.	
Itzulpenak kudeatzen dituen sisteman ("Trados") hobekuntzak egin dira; bestetik, terminologiaren alorrean, Bizkaiko Foru Aldundiko administrazio-terminoen bilduma eguneratzen jarraitu dugu. Gainera, itzulpen-prozesuak optimizatzen, lehendik dauden aplikazioak hobetzen eta zerbitzu berriak lantzen jarraitu dugu.	Se han realizado diversas mejoras en el sistema gestor de traducciones ("trados") y, en el campo de la terminología, se ha continuado actualizando la recopilación de términos administrativos de la Diputación Foral. Además, se han continuado optimizando los procesos de traducción, mejorando las aplicaciones existentes actualmente y desarrollando nuevos servicios.	



Sail Txostena - GASTUAK
Memoria Departamento - GASTOS

SAILA / DEPARTAMENTO	ATALA / SECCIÓN	FUNTZIONALA / FUNCIONAL
04. Euskara, Kultura eta Kirola 04. Euskera, <i>Cultura y Deporte</i>		

5. Zerbitzu Zentralen arloa

Jarduera horiek guztiak Zerbitzu Orokorrren gainbegiratzeari eta aholkularitzari loturik egiten dira; izan ere, Zerbitzu Orokorrak koordinazioa landu eta laguntza emateko organoak dira, hala zuzendaritzako organoei dagokienez, nola sailaren kudeaketaren organoei.

5. Área de servicios centrales.

Todas esas actividades se realizan bajo la supervisión y asesoramiento de los Servicios Generales, configurándose éstos como instrumento de coordinación y apoyo tanto respecto de los órganos directivos, como de los de gestión del Departamento.